

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

**CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES**

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Pirinioetako Lan Komunitatearen sarietarako hautagaitzak aurkezteko epea zabaldu da

Mugaz haraindiko lankidetzak saritzen dituzte bi mailatan: Gazteria eta Aktore dinamikoak

Jueves, 19 de abril de 2012

Uztailaren 31 arte epea zabalik dago Pirinioetako Lan Komunitateak (CTP) urtero ematen dituen sarietarako hautagaitzak aurkezteko, Pirinioetako lurraldean hartutako mugaz haraindiko lankidetzak ekimen eredugarriak aitortzeko xedearekin.

Sari horiek bi maila dituzte: "Gazteria" eta "Aktore dinamikoak". Lehenengoa 10.000 eurokoa da, eta bigarren hezkuntzako eta lanbide-heziketako ikastetxe, elkarte, kulturgune, gazteen egoitza eta abarrentzat dira, eta biztanleen segmentu horri onura egiten dizkieten mugaz haraindiko ekintzak burutzen dituztenak.

Aldiz, "Aktore dinamikoak" mailarekin Pirinioetako Lan Komunitateak aitortu nahi ditu: Pirinioak eta CTPa osatzen duten lurraldeen garapen, aitortza edo birbalorazioari laguntzen dizkieten lankidetzak ekimenak.

Sarien araudia eta hautagaitzak aurkezteko formularioak [Pirinioetako Lan Komunitatearen webgunean](#) lor daitezke.

Azken edizioan saritutakoak

laz [Hiru Behien Zergak saria jaso zuen "Aktore dinamiko"-en mailan](#); era horretan, haren funtzio historikoa aitortzen zizaion mugaz haraindiko itun gisa, eta baita kultur ondare inmaterial gisa duen balioa ere.

Hiru Behien Zerga Europako mugaz haraindiko bake-itun zaharrena da, 1375etik indarrean dagoena, eta Erronkariko ibarraren eta Baretous-en (Frantzia) artean lotura estuak sortu ditu.

"Gazteria" mailan 2011n Euskal Autonomia Erkidegoko eta Pirinio Ekialdeko (Frantzia) bi institutuk sustatutako proiektu bat saritu zen; proiektu hori uraren kudeaketa eta biodibertsitatearen bidezko garapen iraunkorraren hezkuntzari buruzkoa da.